

WORKING ZINEMA networking



WORKING ZINEMA NETWORKIG 2017: OINARRIAK

Working Zinema networking ZINEBI jaialdiaren egitarauaren barnean egiten den ekintza bat da, Working Zinema jardunaldiaren baitan. Euskal Produktoreen Elkarteak (EPE/APV) eta ZINEBIk antolatzen dute eta aurten azaroaren 14an egingo da (asteartea).

Aditu talde batek proiektu irabazlea aukeratuko du deialdira aurkeztu eta networkingean parte hartzen dutenen artean. Sarituak 6000€, aholkularitza profesionala, eta ekoizpen baliabide teknikoak jasoko ditu lana (dokumentala, webseriea, film laburra edo film luzea) aurrera eraman ahal izateko.

Gainera, deialdian izena ematen duten guztiek ekoizle profesionalekin, beste parte-hartzaileekin eta sektoreko profesionalekin harremanetan jartzeko aukera izango dute.

PARTE-HARTZEA

Ekimen honetan euskal ekoizpena duten dokumental, webserie, film labur, edo luzeen proiektuek parte hartu dezakete.

IZENA EMATEA

Deialdi honetan parte hartu ahal izateko beharrezkoa da www.epe-apv.com webgunean hurrengo egunetan eskegiko den formularioa betetzea eta bertan eskatzen den dokumentazio gehigarria hurrengo helbidera bidaltzea: info@epe-apv.com.

Bidali beharreko dokumentazioa (* batekin markatutakoak ezinbestekoak dira):

- Proiektua azaltzen duen memoria*
- Gidoiaren sinopsia*
- Gidoia*
- Zuzendariaren kurrikuluma*
- Aurrekontua
- Produkzio plana
- Finantzazio plana
- Fitxa tekniko eta artistikoa

BALDINTZAK

- Zuzendari bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake
- Ez da onartuko lan bukatuak
- Proposamenak orijinalak izan behar dute
- Proiektuak azaroaren 14an ZINEBI59 barnean antolatuko den Working Zinema jardunaldiko networking saioan parte hartuko du.

EPEA

Aurkezteko epea irailaren 4tik urriaren 31ra (barne) egongo da zabalik.

AUKERAKETA

EPE/APVk izendatutako adituen talde batek erabakiko du zein den proiektu irabazlea, Working Zinema networking ekimenean parte hartzen dutenen artean.

SARIA

Proiektu irabazleak 6.000€, aholkularitza profesionala eta ekoizpen baliabide teknikoak eskuratuko ditu ikus-entzunezko proiektua (dokumentala, webseriea, film laburra edo luzea) aurrera ateratzeko.